

IRAGARKIA

43. ALDIZKARIA - 2025eko martxoaren 4a

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.7. BESTELAKOAK

ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2024ko abenduaren 11n hartua, zeinaren bidez onesten baita Noáin (Valle de Elorz) / Noain (Elortzibar) udalerriaren izena aldatzea. Hemendik aurrera Valle de Elorz / Elortzibar izanen da.

2024ko irailaren 16an, Noain Elortzibarko Udalaren instantzia bat sartu zen Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusian, zeinaren bidez eskatu baitzen udalerrri horren izena Valle de Elorz / Elortzibar izatera pasa dadin.

2024ko irailaren 18an, udal horri eskatu zitzaion instantziarekin batera aurkeztutako dokumentazioan atzemandako akatsak zuzen zitzan, eta egun berean aurkeztu ondoren eta egiaztapenak egin ondoren, izapidetutako espedientea igorri zen.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 22. artikulua ezartzen du udalerrien izenak aldatuko direla udalek horretarako erabakia hartzen dutenean, erabakia bera jendaurrean egon ondoren, gutxienez ere hilabetez. Udal erabakia Foru Komunitateko Administrazioari igorri beharko zaio, Nafarroako Gobernuak onespena eman diezaion, eta onetsizat hartuko da hilabete baten barnean ebazpenik ematen ez bada. Era berean, 21.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, udalerrien izenetan euskara erabiltzeko, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeari jarraitu behar zaio.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak 3. artikuluko 3. apartatuan ezartzen duenez, Euskaltzaindia da hizkuntza-arauak ezartzeko erakunde aholku-emaile ofiziala, eta botere publikoek beharrezkotzat jotzen dituzten txosten guztiak eskatuko dizkiote erakunde horri. Testu arau-emaile berak 8.2 artikuluan xedatzen duenez, Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren txostena jaso ondoren, Foru Komunitateko toponimoak zehaztuko ditu, bai eta biztanleguneen izen ofizialak ere.

Aurrekoarekin bat, 2024ko irailaren 20an, Toki Entitateentzako Aholkularitza Juridikorako eta Lankidetzarako Zerbitzuak izen aldaketari buruzko txostena eskatu zion Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari. Era berean, toki erakundeari jakinarazi zitzaion prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea etenda egonen zela harik eta aipatutako txosten hori jaso arte, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikulua 1 d) apartatuan ezarritakoarekin.

Bestalde, 2024ko urriaren 23an, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari bidali zion nahitaezko txostena, non zehazten baita Euskaltzaindiak baieztatu duela zuzena dela proposatutako euskal izena: Elortzibar.

Azaldutakoarekin bat, bidezkoa da Nafarroako Gobernuak izen aldaketa onestea. Izen aldaketari buruzko ebazpena Estatuko Administrazio Orokorrari igorriko zaio, Toki Erakundeen Erregistroan inskribatzeko, uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 25.3 artikuluari jarraikiz; inskripzio hori, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Toki Erakundeen Erregistroan egin behar da.

Horretarako, uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 23. artikuluan xedatuarekin bat, "udalen izen aldaketek ofizialtasuna lortzeko ezinbestekoa da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 14. artikulua aipaturiko erregistroan jasotzea eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematea".

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, Lurralde Kohesiorako kontseilariak proposaturik,

ERABAKITZEN DU:

1. Noáin (Valle de Elorz) / Noain (Elortzibar) udalerraren izenaren aldaketa onestea. Hemendik aurrera Valle de Elorz / Elortzibar izanen da.
2. Izena aldatzeko erabaki hau Estatuko Administrazio Orokorrari igortzea, inskripzioa egin dadin Toki Entitateen Erregistroan, eta, orobat, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko Arauen Garapenerako eta Toki Araubiderako Atalari eta Laguntza Tekniko-administratiboaren Atalari, inskripzioa egin dadin Nafarroako Toki Entitateen Erregistroan.
3. Izen aldaketa hau argitaratzea, dagozkion inskripzioak egin ondoren, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean.
4. Ebazpen hau Noain Elortzibarko Udalarari jakinaraztea eta aditzera ematea honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko duela, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita. Horrek ez du ukatzen Nafarroako Gobernuan aldez aurreko errekerimendua egiteko aukera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epean.

Iruñean, 2024ko abenduaren 11n.–Nafarroako Gobernuak kontseilari-idazkaria, Félix Taberna Monzón.

Iragarkiaren kodea: F2502319